



Aingira: oztopo guztien gainetik

Álvarez Busca, Lucía

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Aingira europarrak Sargazoetako Itsasoan jaiotzen dira, eta milaka kilometroko bidaia egiten dute Europako ibaietara iritsi arte. Bidaia horretan, oztopo natural nahiz artifizialak gainditu behar dituzte aingirik, besteak beste arrantza-jarduerak. Azken urteetako arrantza-harrapaketek erakusten dute, hain zuzen ere, espezie horren populazioak behera egin duela. 1970. urtetik hona beherakada nabaria gertatu da, eta, datuen arabera, egungo harrapaketak 1970ekoen % 1 besterik ez dira.

ZIENTZIALARIAK DUELA HAMAR BAT URTE hasi ziren egoera kezagarriaren berri ematen. Izan ere, populazioen beherakada ez zen gune edo arro jakin batzuetan bakarrik gertatzen ari, baizik eta Europa osoan eta Afrika iparraldean. Ikerketen ondoren, aingira europarra jasangarritasunaren muga biologikoetatik kanpo zegoela ondorioztatu zuen ICESek (International Council for the Exploration of the Sea).

Ikerketa-lan askoren ondoren, 2007an arautegi bat onartu zuten egoerari aurre egiteko. Arautegi horretan, helburu nagusi gisa aipatzen da aingira-populazioak berreskuratzea. Horretarako, jaiotako aingira guztien % 40 itsasora bueltatzea bilatzen da. Horri ihes-portzentajea deitzen zaio. Helburu horrek erronka asko sortzen dizkie zientzialariei. Izan ere, zaila da datu hori kontrolatzea, eta ez dago argi era-

ginik gabeko egoeran zenbateko portzentajeak lortzen duen itsasora bueltatzea.

Aingiren itsasoratzea bermatzeko, gizakiak eragindako heriotzak muga-tzea bilatzen du araudiak. Horretarako, kudeaketa-planak osatzeko bete-beharra ezartzen die ICES osatzen duten herrialdeei. Kudeaketa-planetan, hainbat neurri aipatzen dira, hala nola



AZTI



EAEn, aingiraren arrantza ohiturazko jarduera da, ez komertziala.

arrantza komertziala eta aisialdiko arrantza mugatzea, birpopulaketak egitea, habitata eta ibaien konektibitatea hobetzea, harrapari naturalen inpaktua aztertzea eta espeziearen akuikultura garatzea.

EAeko plana garatzea

Duela bi urte hasi ziren EAEn Aingiraren Kudeaketa Plana garatzen. Erkidego-plana garatzeko lantaldeak aingiraren kudeaketan inplikaturako erakunde guztiak biltzen ditu, hala administrazioak nola eragile zientifiko-teknikoak: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, AZTI-Tecnalia, Ekolur Ase-

soñía Ambiental eta EHU. Horiekin lan-kidetzan aritu dira Arabako Foru Aldundia, Mutrikuko Akuikultura Eskola eta arrantza-sektorea ere.

Kudeaketa-plan horretan, hainbat neurri zehatz aurkezten dira EAeko kasuan aplikatzeko. Horien artean

“bi kilogramoko muga ezartzen da arrantzale eta egun bakoitzeko”

dago arrantzaren kudeaketa. Atal horretan, hainbat puntu aipatzen dira. Lehenik, arrantzarako baimena berrietzeko baldintzak zorrotz betetzea eskatzen zaie arrantzaleei. Horiek, urtero-urtero, harrapatutakoaren datuak jasotzen dituen koaderno bat entregatu behar diote administrazioari. Hala, lehen eskuko informazioa jasotzen dute, bai administrazioak, eta bai ikertzaileek. Gainera, era horretan, arrantzaleek planaren garapenean parte hartzen dute, eta ardura handiagoaz arrantzatzen dute. Koadernoak betearazteaz gain, datu horiek epeen barruan entregatzeko eskatzen zaie —orain arte askok epeetatik kanpo entregatzen zituzten, eta horrek ikerketarako datuak baldintzatzen ditu—.


Arrantzaren kudeaketaren baitan dago angularen harrapaketa-kupoa —EAEn ia ez da aingirarik arrantzatzen—. Hala, 2 kilogramoko muga ezartzen da arrantzale eta egun bakoitzeko, bai lurretik egindako arrantzetan, bai ontzietatik egindakoetan.

Gainera, arrantza-denboraldiaren murrizketa ezartzen da. Orain arte, urritik martxora luzatzen zen, baina kudeaketa-planak azaroaren 15etik urtarrilaren 31ra mugatzen du. Denbora-tartea mugatzeaz gain, arrantza-lekuak ere mugatu dira, eta erreserba iraunkor izendatu dira hiru ibai nagusi —Oiarzun, Urumea eta Barbadun— eta

Kudeaketa Planaren aplikazio-esparrua

EAeko planean, Bizkaiko Golkoko arroak barneratzen dira. Horien artean, erkidego bateko nahiz erkidego arteko arroak aipatzen dira. Izan ere, hainbat arro erkidego mugakideekin batera kudeatu behar dira, duten hedapen geografikoarengatik.

Planean aipatzen diren erkidego barneko arroak Barbadun, Butroe, Oka, Lea, Artibai, Deba eta Urola dira. Erkidego arteko arroak dira, berriz, Ibaizabal (Gaztela eta Leon), Urumea (Nafarroa) eta Oiarzun (Nafarroa).





bigarren mailako bi ibai –Inurritza eta Andrakas arroa–. Arrantzaren kudeaketarekin bukatzeko, aingira ibaietan arrantza daitezkeen espezieen zerrendatik baztertzea eskatzen da.

Hartutako bigarren neurria da bi arrontan –Oria eta Barbadun– birpopulaketa-esperientziak garatzea, eta aingiraren akuikultura garatzea posible den aztertzea.

Habitataren hobekuntza

Aingiraren habitata hobetzea da beste neurrietako bat. Hala, ibaietan dauden hainbat egitura artifizial egokitzea aurreikusten da, bai orain arte eraiki direnetan, eta bai hemendik aurrera egingo direnetan. Honekin lotuta, ekoizpen hidroelektrikoaren turbinak aldi baterako deskonektatzea proposatzen da. Izan ere, turbinetan sartzen diren aingiren ehuneko handi bat hil egiten da. Neurri horrekin, 3-4 urtean gaia ikertzea proposatzen dute, eboluzioa nolakoa den ikusteko. Horren guztiaren helburua da aingirek zirkulatzeko moduko ibaiak egitea. Gainera, ibaien saneamendua eta arazketa-lanak egitea lehentasunezkoztat jotzen da.

Azken neurri gisa, aingiraren harraparien kontrola ezartzen da.



Sargazoen itsasoan jaio eta Europarantz egiten du aingirak. Bidaia luze horretan, hazten joaten da. Argazkian, angulek bidaian zehar duten tamaina-aldaketak ageri dira.

“ibaien saneamendua eta arazketa-lanak egitea lehentasunezkoztat jotzen da”

Gaur egun dauden azterketek ez dute erakusten zenbateko eragina duten animalia horiek aingiraren populazioetan. Horregatik, 3 urtez harrapari horiek identifikatzea, ebaluatzea eta kuantifikatzea proposatzen da.

Plana aurkeztea eta onartzea

lazko abenduan aurkeztu zuten EAEko plana, eta, orain, Espainiako plana garatzen ari dira. Izan ere, Espainiak eskualde guztietako planak batu, eta plan nazionala garatu beharko du aurrean. Bukatutakoan, Europako Batasuneko STECFk (Scientific, Technical and Economic Committee for Fisheries) plan nazionalaren ebaluaketa zientifiko eta tekniko egingo du. Onartutako planak 2009ko uztailean 1ean hasiko dira aplikatzen, eta onartu gabekoek hiru hilabete izango dituzte moldaketak aurkezteko.

Hiru urte barru, 2012an, herrialde bakoitzak planaren garapenaren datuak aurkeztu beharko ditu. Datu horien artean, hauen berri eman beharko dute: zenbateko biomasa-proportzioak lortzen duen itsasoratzea, zenbateko ahalegina egiten duten arrantzatzeko eta zenbatekoa den murrizketa, eta zenbat aingira diren 12 zentimetro baino handiagoak. Hala, herrialde guztietako datuekin, ebaluaketa estatistiko eta zientifikoa egingo dute 2013ko abenduan, kudeaketa-planen aplikazioak izandako emaitzera, hain zuzen. 